

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafar Lansarek diru-laguntzak iragarri ditu, Nafarroan orain bete gabeko 70 espezialitate estrategikotan prestakuntza emateko

275.000 euro bideratuko ditu eta prestakuntza erakundeek martxoaren 29ra arte aukera dute diru-laguntza hauek jasotzeko

Osteguna, 2019.eko martxoak 14

Nafar Lansarek, Eskubide Sozialetako Departamentuaren menpean dagoen erakundeak, diru-laguntza espezifikoa iragarri ditu lehen aldiz, prestakuntza entitatentzat. Helburua, Nafarroan Espezializazio Adimenduneko Estrategiari (S3) lotuta, 70 espezialitateetako ikastaroak programatu ahal izateko.

Diru-laguntza hauek lanean ari direnei zuzenduta daude eta horretarako, ostegun honetako [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) argitaratu den [deialdian](#) agertzen denez, Nafar Lansarek 275.000 emanen ditu aurten. Proposamenen aurkezpen epea martxoaren 29an amaituko da.

Nafar Lansarek, Nafarroan orain bete gabe dauden eta irakatsi behar diren, 70 espezialitate detektatu ditu, balio erantsi handiko jarduerak garatzeko eta funtsezko eremu ekonomikoetan lehiakortasuna handia izan dadin.

Beteko diren espezialitateak ondorengoei lotuta daude: industria 4.0ri (robotika, domotika, big data, errealitate handitua, adimen artifiziala, software aurreratuak, eta gehiago); eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarri; farmazia eta sendagai-industriari; segurtasun informatikoari; industria sortzaileari (bideo eta gidoi zinematografikoa), eta Industria-mantentzeeta nekazaritzako elikagaien industriari (Karbono-aztarna, fitosanitarioak, prozesamendua, mikrobiologia, eta gehiago).

Nafar Lansarek deialdi espezifikoa hau iragarri du, entitateek prestakuntzarako ohiko laguntza-deialdietan espezialitate hauek ez zituztelako eskaintzen. Beraz, ikastaroak abian jartzeko, modalitate presentzial, ikasle eta ordu bakoitzeko laguntza 13 eurotan igo du. Orain arte, Nafar Lansarek gehienez ere 8,05 euro/orduko ordaintzen zuen. Teleprestakuntzarako, zenbatekoa, ordea, 6,5ekoa da.

Diru-laguntza hauen onuradunak izan daitezke, entitate publiko zein pribatuak, baldin eta Nafarroako foru Komunitatean enplegurako lanbide prestakuntza emateko behar den erregistroan inskribaturik badaude prestakuntza ekintzaren dibulgazio jarduerak egiten hasi aurretik, barnean direla titulartasun pribatuko Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak. Horretarako, eskaerak aurkez ditzakete elektronikoki, Nafarroako Atarian: [navarra.es](#), "Tramiteak" atalean dagoen deialdiaren fitxan, "Tramitatu" aukeratuz.

Erakunde bakoitzak bakarrik prestakuntza-programa bat gauzatu ahal izango du, eta gehienez ere, 40.000 euroko diru-laguntza emanen zaio. Prestakuntza-ekintzak azaroaren 30a baino lehen amaitu beharko dira. Halaber, ikastaroen plazen %30a langabezian dauden pertsonak bete ditzakete, eta hauek bekak ere jaso ahalko dituzte, garraio, mantenu, zein lana eta familiako eginkizunak bateratzeko laguntzak, esaterako.